



UGAO-MIRABALLESEKO TOKIKO AGENDA 21 EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA



1 Documentua. Laburpen Diagnostikoa

Dokumentuaren izenburua:	UGAO-MIRABALLESEKO TOKIKO AGENDA 21 1 Dokumentua. Laburpen Diagnostikoa
Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal laguntza teknikoa:	UTE Ondoan, S.Coop. Haizea Ikerketa S.L.
Hartzailea:	Ugao-Miraballeseko Udala
Udaletxe parte-hartzaileak:	Arakaldoko Udala Arrankudiagako Udala Arrigorriaga Udala Etxebarriko Udala Galdakaoko Udala Urduñako Udala Orozkoko Udala Ugao-Miraballeseko Udala Zaratamoko Udala Zeberriko Udala
Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoa	Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal
Orriak:	26
Hizkuntza:	Euskara
Bertsioa:	Behin betikoa
Entrega data:	2012ko iraila

AURKIBIDEA

LABURPEN EXEKUTIBOA	5
AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA	7
HELBURUAK	8
LAN PROGRAMA	9
ARLO TEMATIKOAK	10
EBALUAZIO OROKORRA ETA LEHENTASUNEZKO JARDUERA ESPARRUAK	11

LABURPEN EXEKUTIBOA

Jarraian, diagnostikoaren ondorio garrantzitsuenak azaltzen dira:

LURRALDE ALDERDIAK

Ugao-Miraballes, Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuei nahiz azpiegitura nagusien hurbiltasunari dagokionean, Renfeko trenbide sarea beraien artean, **estrategikoki kokatua dago Herriak hirigune historiko katalogatua** eta balioan jarri nahi den **babestutako ondare** garrantzitsu bat dauka. Nahiz eta udalerriak babestutako eremu naturalik ez izan, badago **jendarteratu eta biztanleriaren ezagutzan jarri nahi den babes bereziko udal azalera**.

Ona da mugikortasunaren kudeaketa eta plangintza bai udalerrri mailan eta baita eskualde mailan ere. Garraio publikoak Ugao-Miraballesen bizi direnentzako nahiz bertara doazentzako paper garrantzitsua duen arren, ez da garraiobideen artean erabilieta eta hobetu beharreko gauzak ditu, adibidez loturak eta maiztasunak.

Oinezkoen sarea eta beronen kalitatea nahiko ona da eta Ugao-Miraballeseko auzotarrei udalerriko puntu interesgarrietara iristeko bermea eskaintzen dio. **Bizikleta sareari dagokionean, inguruko herriein lotura lortu nahi da baita oinezko eta txirrindularien artean beronen erabilera eta partekatze arduratsu bat ere.**



BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA

Ur sareko galerak hobetu diren arren, galeren garapenaren kontrolarekin aktiboki lan egiten jarraitu behar da.

Herriko egitura energetikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri askorena bezala, erregai fosilen erabilera oinarritzen da, ondorioz berotegi efektua eragiten duten gasen isurketa ematen delarik. Beraz, herriko beste erronka nagusietariko bat, bai maila publikoan nahiz pribatuan, esparru honetan sakontzea da berriztagarriak ez diren iturrien erabilera murriztuz eta berotegi efektua eragiten duten gasen emisioak gutxituz.

Kalitate akustikoari dagokionean, udalerriko azaleraren % 30 baino gehiago kalitate helburuen (50 dB(A)) gainetik aurkitzen da, hiri-gunearen inguruan eta bere mugan dauden eraikinetan kokatzen direlarik gunek hauek. Eremu hauetan zaratak duen eragina murrizteko lanean dihardute.



GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA

Hirugarren sektoreko jarduerak dira nagusi herrian, industri sektorearen garapen aukera poligonoetako lur erabilgarriaren aprobetxamenduaren menpe aurkitzen da, eraikuntza sektoreak behera egin du eta lehen sektorearen presentzia oso mugatua da. Herriko helburu sozial eta ekonomiko nagusia **tokiko ekonomiaren sustapenean eta dibertsifikazioan** oinarritzen da, jarduera industrial berriak nahiz tokiko merkataritzaren garapena bultzatu nahi delarik.

Gizarte eta osasun zerbitzu eta ekipamendu eskaintzak biztanleriaren beharrei erantzuna eman izan dion arren, **aipagarria da hobekuntza guneak hauteman**



direla osasun ekipamenduei dagokionean. Etorकिन integrazioa eta genero berdintasuna bultzatuko duten ekintzen garapenean aurrera egitea da udal kudeaketaren barruan garrantzi berezia hartzen duten bi lerroak. **Bigarren hezkuntzako zentro baten eraikuntzak**, orain arte haur eta lehen hezkuntzara mugatua egon den hezkuntza eskaintzaren zabalkuntza ekarriko du eta honela Ugaoko ikasleek inguruko herrietara joan behar izana saihestuko da.

Euskararen ezagutzak gora egin du urtetik urtera, baina **eguneroko bizitzan** bere erabilera bultzatzen jarraitu behar da.

Kirol eta kultura eskaintzak gaur egungo eskaria asetzen du, baina udalak antolatzen dituen ekintzen aurrean gizartearen erantzun on bat jasotzen jarraitu ahal izateko **beharrezkoa egiten da kultur ekipamendu eskaintza egoki eta anitza bermatzea baita udala eta giza eragileen arteko ekintza koordinatuen garapena indartzea ere.**

Eraikitako ondarearen kontserbazioa, hobekuntza eta erabilera eraginkorra lehenetsiko duen **etxebizitza politika baten garapena da udal kudeaketan kontuan hartuko** den lehentasunezko jarduera esparruetariko bat.

SENTSIBILIZAZIOA, HERRITARREN PARTAIDETZA ETA BARNE KOORDINAZIOA

Parte-hartze kultura eta komunitate kontzientzia finkatzen lagunduko duten egitura parte-hartzaile berrien aurrerakuntzaren alde aktiboki lan egiten da.

Herriko jasangarritasun prozesuaren oinarria, **sentsibilizazioa, prestakuntza eta eguneroko bizitzan praktika egokien ezarpenaren bitartez**, biztanleria eta tokiko administrazioaren ohiturak aldatzea da.

Garatzen ari diren zenbait politiken zeharkakotasunak **departamentuen arteko koordinazioa eta elkarlana** are gehiago indartzeko dagoen **beharra** agerian jartzen du.



AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA

2004 urtean Nerbioi-Ibaizabal eskualdeko udalerriak (Arakaldo, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Etxebarri, Galdakao, Ugao-Miraballes, Urduña, Orozko, Zaratamo eta Zeberio) **Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal** sortu eta Tokiko Agenda 21 prozesuak era bateratuan diseinatzeko asmoz elkartu ziren.

2006 eta 2007an diseinu fasea behin amaitu ondoren (diagnostikoak idaztea eta Ekintza Planak onartzea) eta Aalborgeko Gutuna sinatu ondoren, udalerrri guztiek **Udalsarea 21**eko partaide izatera pasa ziren, Jasangarritasunerako Udalerrrien Euskal Sarea.

2011 urtean Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabalek **Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoa** abian jartzen du. Hamaika udaletxeei (lehen aipaturikoak gehi Basauri) eta Nerbioi-Ibaizabalgo eskualdeko herritarrei orokorrean, zerbitzua, baliabideak eta ekintzak eskaintzeko asmoz sortutako ekipamendua da.

Tokiko Agenda 21a abian jarri denetik udalerrietan eskualde mailako zenbait proiektu eta ekintza garatu dira. Ondoren Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoaren zerbitzu nagusienak aurkezten ditugu, 5 lan esparruetan banaturik:

1. **Tokiko Agenda 21:** Tokiko Ekintza Planen gauzapenean, ezarpenean eta ebaluazioan laguntza.
2. **Industriako Agenda 21:** Eskualdeko enpresetan ingurumen hobekuntzarako laguntza.
3. **Eskolako Agenda 21:** Eskualdeko eta udalerriko ikastetxeen iraunkortasunerako eta kalitaterako hezkuntza Programa.
4. **Hondakinen kudeaketa:** Eskualde mailako bilketa zerbitzua: etxeko olioak, inpresio hondakinak eta mugikorrak; pilak eta akumuladoreak; erabilitako arropa eta *probetxagarriak diren bestelako etxeko objektuak*.
5. **Mugikortasun iraunkorra:** Eskualdeko Iraunkortasun Planean aurreikusitako ekintzen ezarpena.

6 urte igarota 1go Ekintza Plana onartu eta bere gauzapena hasi zenetik, Udaletxeek Eskualdeko Iraunkortasun Bulegoaren bitartez, berrikuspen prozesua abian jartzea erabakitzen dute, **aurreko plana ordezkatzeko duen eta udalerriek dituzten behar eta baliabideekin bat etorriko den plan berri bat egiteko.**

Testuinguru honetan eta berrikuspen prozesu honen lehen fasearen ondorioz, 2012 urtea bitartean Ugao-Miraballeseko Udalak udalerriko *Gizarte, ekonomia eta ingurumen Diagnostikoa* egin du.

HELBURUAK

Berrikuspen prozesuaren **helburu nagusia** datozen 8 urteetan udalerrian garatuko diren lehentasunezko jarduera esparruak barne hartzen dituen Tokiko Ekintza Plan bat definitzean datza. Gainera, zera lortu nahi da:

- Planaren helburuak eta ekintzak iraunkortasunarekin erlazionaturiko legeriaren, teknikaren ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren bilakaerara egokitzea.
- Planaren ezarpen maila nolakoa izan den arabera Plana gaika egokitu.
- Plana udalerrriaren giza, ingurumen eta ekonomia bilakaerara egokitu.
- Planean aurretik kontutan hartu ez ziren gai tematiko berriak sartu.
- UT21 Nerbioi-Ibaizabalgo udalerrien artean egindako eskualde mailako hausnarketaren bitartez Eskualde mailako Ekintza Plan bat zehaztu.

Berrikuspenaren lehen fasean, **helburu zehatzak** hauek dira:

- Lurralde, ingurumen, komunikazio, parte-hartze eta gai sozio ekonomikoen inguruko azterketa bat egin ondoren balorazioa egiteko.
- Balorazio horretatik abiatuta, Ekintza Plan berriaren lehentasunezko jarduera esparruak ezarri.
- Aurreko Planean indarrean dauden eta garrantzitsuak diren ekintzak identifikatu.
- Udalerriko eta udalaz gaindiko planak eta programak identifikatu Plan berriari sartu ahal izateko.
- Helburu estrategikoak zehaztu Plan berriaren formulazioa egiteko.
- Interesa duten gizarte eta ekonomia eragileen eta herritarren ikuspegia txertatu.
- Gaian eskumenak dituzten politikari eta teknikarien balioztatzea bermatu.

LAN PROGRAMA

Tokiko Ekintza Planen berrikuspena egiteko erabilitako oinarritzko metodologia “**EAE-ko udalerrietako Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planak berrikusteko gida metodologikoa**” oinarritzen da. Gida horrek dionari eutsiz, Tokiko Ekintza Plan baten berrikuspenak honako faseak ditu:

0. Zehaztea eta abian jartzea.
1. Oinarritzko informazioa biltzea eta barneratzea.
2. Sintesi Diagnostikoa.
3. Planaren Formulazio estrategikoa.
4. Ekintzen ezaugarritzea.
5. Plana kudeatu, jarraipena egin eta onartzeko lanabesen diseinua.

Metodologia hori aintzat hartuta, **lan teknikoa, barne koordinazioa eta parte-hartzea eta herritarren parte-hartze ekintzak** kontutan hartu dituen **Lan Programa** bat garatu da:

- **Lan teknikoak:** Aholkulari Taldeak burutuak proiektuko Zuzendaritza Politikoa eta Teknikoa eta teknikariek elkarlanean.
- **BARNE koordinazio eta parte-hartze lanak:** Bakarkako elkarrizketak edo talde lanaren bitartez TALDE SUSTATZAILEAREN bitartez, udaletxeko arlo ezberdinetako politikari eta teknikariz osatutako udal barrutiko organoa.
- **HERRITARREN PARTE-HARTZE ekintzak:** interesa duten giza eragileei egindako elkarrizketen bitartez, web galdetegiaren bitartez eta Herritarren parte-hartze Foroaren bitartez (*herritarren ekarpenak dokumentuan espresuki aurretik eta kurtsibaz doan (*) bitartez seinalatu dira.*)

ARLO TEMATIKOAK

Diagnostikoa ondoren aurkezten ditugun 17 arlo tematikoz osatzen da:

LURRALDEARI LOTURIKO ALDERDIAK

1. Lurraldea eta plangintza
2. Natura eta bioaniztasuna
3. Mugikortasuna eta garraioa

SENTSIBILIZAZIOA, HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA BARNE KOORDINAZIOA

11. KOMunikazioa, sentsibilizazioa eta herritarren parte-hartzea
12. Barne koordinazioa eta zeharkakotasuna.

NATUR BALIABIDEAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA


4. Ura
5. Hondakinak
6. Energia
7. Ingurumen kalitatea (atmosfera, zarata eta lurzorua)
8. Arriskuaren kudeaketa eta jarduerak ekonomikoak
9. Erosketa publikoa eta udal administrazioaren ingurumen kudeaketa
10. Klima aldaketa eta inpaktu orokorra

GARAPEN SOZIALA ETA EKONOMIKOA

13. Biztanleria
14. Garapen ekonomikoa eta lan merkatua
 - Ekonomia egitura eta jarduerak maila
 - Lehen sektorea
 - Bigarren sektorea
 - Zerbitzuen sektorea
 - Turismo eta ostalaritza sektorea
 - Enplegua eta lan merkatua
15. Ongizatea eta gizarteratzea
 - Zuzentasuna eta gizarte zerbitzuak
 - Genero berdintasuna
 - Elkarbizitza
 - Osasuna eta osasun zerbitzuak
 - Telekomunikazioak eta IKT-erara irismena
16. Hezkuntza, euskara, kultura eta kirola
17. Etxebizitza

Alor tematiko bakoitza azpi-alorrez osatua dago eta hauetako bakoitzean **diagnostikatutako alderdi klabeak kontutan harturik balorazio kualitatiboa eta orokorra egin da**, helburua honakoa da:

- Beste azpi-alorrekin konparatuz era positiboagoan edo negatiboagoan baloratzen diren azpi-alor horien inguruko ikuspegi orokorra eskaini.
- Lehenetsuneko jarduerak esparruen identifikazioa erraztu.
- Udaletxeko teknikari, politikari eta herritarrek orokorrean diagnostikoa irakurri eta eztabaidatu dezaten sustapena egin.






BALORAZIOA	
 <p><i>Ez baloragarria</i></p>	<p>Balorazioa egiteko irizpideak <i>“EAE-ko udalerrietako Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planak berrikusteko gida metodologikoa”</i> agertzen dira.</p>

Diagnostikoko arlo tematiko bakoitzaren edukia, balorazioa eta lehenetsuneko jarduerak **FITXA TEMATIKO** gisa jasota daude.

EBALUAZIO OROKORRA ETA LEHENTASUNEZKO JARDUERA ESPARRUAK

LURRALDE GAIAK. Ebaluazio orokorra eta lehentasunezko jarduera esparruak			
Azpi eremua	B	Alderdi Nagusiak	Lehentasunezko esku-hartze jarduera esparruak
1. LURRALDEA ETA PLANEAMENDUA			
1.1. Lurralde eremua		Ugaoko gune libreentzako sistemak ongi betetzen ditu eskatutako 5m ² /biztanleko eta gainera UT21eko udalerrien batz bestearen gainetik aurkitzen da.	<ul style="list-style-type: none"> • Oinezkoek eta bizikletek aire librean aisialdirako aktibitateak eta lurraldea aprobetxatzeko guneak eta ibilbideak balioan jarri eta egokitu. (GUNE BERDEAK) • Udalaren eskumenen barruan ez dauden eta degradaturik dauden espazioen birsortzea bultzatu • URAREkin elkarlanean erriberako garbiketa egiteko jarduera protokolo bat hitzartu (eskualde mailan egin daiteke). • Herriko zonalde ezberdinetako eraikuntzen zaharberritzea bultzatu, fatxaden egokitzapena, e.a. Hirigune historikoko itxura mantendu. • Herriko ondare arkitektonikoa balioan jarri eta kontserbatu. • FOROKO PROPOSAMENA: Hirigune historikoan egiten diren eraikuntzen erreformatan nahiz eraikuntza berrietan itxura, estetika eta uniformitatea babestu (plazako gunetik hasita 3 kañoetako iturriraino). • Korridore berdeak bultzatu, gune ezberdinak elkarren artean eta hirigunearekin lotzen dituzten natur sistemetan oinarrituta • Hiri plangintzan iraunkortasun irizpideak txertatu (dentsitateak, erabileren dibertsifikazioa, eraginak, e.a.)
1.2. Egitura organikoa eta lurzorua erabilerak		Hala ere, beharrezkoa da biztanleriaren aisialdirako guneak balioan jartzea, merenderoa, Goikiri, parkeak,, e.a.	
1.3. Biztanleri asentamenduen egitura		Renfeko zenbait mugetan garbitasun arazoak hautema dira, Udalak ez du ordea eskumenik hauen garbiketa egiteko.	
1.4. Gune berdeak eta hirigune ingurukoak		Mendoitzen garbiketa udal aurrekontuaren bidez egietn da.	
1.5. Paisaia eta gune degradatuak		Nerbioiko erriberaren egoera hobegarria da. Ugao-Miraballeseko udalak ordea ez du gai honetan eskumenik eta URAREN (Uraren Eskal Agentzia) indikazioak jarraitu behar dira edozein ekintza garatu nahi bada bertan, berau da organo eskuduna uraren politikaren garapenean Euskadi mailan. Hala ere, zenbait eekintza garatu dira udal aurrekontuarekin bain beti URAREN baimenarekin. Udalerriak katalogaturiko hirigune historikoa dago baita babestutako ondarea ere. Udiarrako Gure Amaren ermita duela gutxi monumentu bezala katalogatua izan da Eusko Jaurlaritzatik, udalak hala eskatuta.	
1.6. Ondare arkitektonikoa eta kulturala		Kontserbatu nahi diren elementu arkitektoniko eta kulturalak aurkitzen dira, honakoak adibide: iturria, San Bartolome Elizako portikoak, hilerriko aurrealdea, Renfeko Geltokia, Gandarias Etxean, ea.	
1.7. Lurralde eta zatikako planeamendua		2006ko azaroan onartutako Bilbao Metropoliko LZPak Ugao-Miraballesen eragina duten erasan egituratzaileak eta helburu estrategikoak ezartzen ditu.	
1.8. Hiri planeamendua		<u>Erasan egituratzaileak:</u> <ul style="list-style-type: none"> - Sare berdeko natur ibilbideen sarea.. - Bizikleta sarea: Ugao-Miraballesi dagokionean herrirako aurreikusitako bidegorria luzatzea aurreikusten da: bide bat Arrankudiagaraino eta bestea Zeberioraino eta Lupardotik 	

LURRALDE GAIAK. Ebaluazio orokorra eta lehentasuneko jarduerak esparruak			
Azpi eremua	B	Alderdi Nagusiak	Lehentasuneko esku-hartze jarduerak esparruak
		<p>Arrigorriagarainoko lotura.</p> <ul style="list-style-type: none"> - LZPak Ugao-Miraballes intermodalitate bereziko nodo nagusi bezala proposatzen du, autobusarekin konbinatua eta auto eta bizikletentzako aparkatzeko aukeren bitartez Ugao, Arrankudiaga eta Zeberiorik datozen bidaiarien kaptaziora lotua. <p>Indarra dagoen udal planeamenduak ez du Eraikuntzako Kode Teknikoak esaten duenaz gain iraunkortasun irizpide zehatzik aurreikusten, ez lurraldearen ordenazioan eta erregulazioan ezta eraikuntzan ere.</p> <p>Ordenantza fiskalek dauden eraikuntzetan eguzki energia bidez aprobetxamendu termiko eta elektrikoak ezartzen dituztenentzat IBlan bonifikazioa aurreikusten dute</p> <p>2010 urteko erreferentzia datuen arabera ez dago eraginkortasun energetikoa duten etxebizitzarik.</p>	
2. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA			
2.1. Eguneroko mugikortasun beharren ezaugarriak	☹️	Nerbioi-Ibaizabalgo 11 udalerrientzako 2011 urtean egindako Eskualde mailako Mugikortasun Iraunkorrek Planak, mugikortasuna, aparkalekuak, garraio publikoa eta bide sarearen ezaugarriak aztertu ondoren, energetikoki iraunkorragoa, gutxiago kutsatuko duena eta biztanleriaren bizi kalitatea hobetuko duen mugikortasun jarduerak integratzen planteatzen du.	<ul style="list-style-type: none"> • Eskualdeko Mugikortasun Plan Iraunkorrek Ugao-Miraballeserako aurreikusitako neurriak ezarri. • Nerbioi ibaiaren gainean pasabide berri bat eraiki. • Eskualdeen artean eta Bilborako garraio publiko bidezko loturak eta maiztasunak hobetu. • Autobusetako informazioa hobetu. • Herriko Irisgarritasun Plana garatu. • FOROKO EKARPENETIK ERATORRIA: Adifekin adostu Renfeko erabiltzei geltokirako irisgarritasuna bermatuko dien neurrien garapena. • Trenbideko bi nasak eta trenbideak banatzen dituen herriko bi zonaldeak lotu ahal izateko, Sustapen Ministerioarekin eta Renferekin koordinatuta, Trenbideko lur-azpiko igarobidea tunel bezala erabiltzeko bideragarritasunean aurrera egin. • Bizikletaren erabilera bultzatu eta beharrezkoak diren azpiegiturak ipini Bizikleta garraibide bezala erabili ahal izateko.
2.2. Mugikortasunaren kudeaketa eta planifikazioa	☹️	Ingurunearekin lotura ona dagoen arren, (bide sarea, autobus sarea, trenbide sarea), eskualde eta Bilbo Handiarekiko loturak eta maiztasunak hobetu daitezke, horretarako UT21 Nerbioi-Ibaizabalgo Eskualde mailako Mugikortasun Planetik eratorritako planteamenduak kontutan hartuko dira.	
2.3. Konektibitatea eta lurraldera irisgarritasuna	😊	Oinezkoen sarea eta beronen kalitatea nahiko ona eta era berean herritar guztiak herriko interes puntu ezberdinetara iristeko berme nahikoa eskaintzen du. Hala ere, irisgarritasuna hobegarria da auzoen kasuetan.	
2.4. Garraio publikoa	😊	Goikirin adibidez, sarbidea hobegarria da gaur egun eta unitate urbanistikoa garatzearen menpe aurkitzen da, orduan bertan aurreikusitako hobekuntza urbanistiko eta ekintzek ibilbideak eta espaloiak zabaltzea derrigortuko dute.	
2.5. Oinezko eta bizikleten sareen ezaugarriak	☹️	Udalerririk 2006 urtean egindako Irisgarritasun Plan bat dauka.	
2.6. Bide sarea	☹️	Igogailu faltak Renfeko geltorira iristea zaildu egiten du. Udala Renferekin, organo eskuduna, gestioak egiten ari da hautemandako arazoari irtenbidea	
2.7. Landa eremuko ibilbideak	☹️		








LURRALDE GAIAK. Ebaluazio orokorra eta lehentasuneko jarduera esparruak			
Azpi eremua	B	Alderdi Nagusiak	Lehentasuneko esku-hartze jarduera esparruak
2.8. Aparkalekua		aurkitzeko.	<ul style="list-style-type: none"> • Bizikleta ibilbide partekatuen erabilera segurua eta arduratsua bultzatu oinezko eta ibilgailuen partetik. • Ugao-Miraballeseko bidegorria beste udalerriekin lotura bultzatu. • Salgaien garraioak bide saretik igarotzean eragiten duen zarata murrizteko zarata Mapako proposamenak garatu, zarata pantaila bat jarriaz. • Disuasio aparkaleku gunek gaitu. • Ikastetxean bide hezkuntza jardunaldien garapen bultzatu eta lagundu. • Biztanleria mugikortasun iraunkorrean eta ibilgailu pribatuaren erabileran sentsibilizatu.
2.9. Motorizazioa eta ibilgailuen parkea		Trenbideko lur azpiko igarobidearen zabalkundeak, geltokiko nasak bakarrik ez baizik eta gaur egun trenbideak banatzen dituen herriko bi gunek konektatuko lituzken tunel batean eraldatzea suposatuko luke.	
2.10. Istripuak		Arana-Lupardoko estaldurak ere gune libr eta publikoa eta Renfeko bi ertzen lotura La ampliación del paso subterráneo de las vías del tren, supondría su transformación en un túnel que conectase no sólo los andenes de la estación, sino también las dos zonas del municipio separadas hoy por las vías del ferrocarril. También la cubrición en la zona Arana-Lupardo supondría ganar un espacio libre y público y de conexión de ambas márgenes de Renfe.	
2.11. Salgaiak		“Bizikleta sustatzeko Planaren garapenean” Obra eta Garraioetako Foru Departamenduak Ugao-Miraballeseko “oinarrizko bizikleta sarea” egin du. Oinarrizko sare honen ibilbidea Nerbioi-Ibaizabalgo ardatz ziklabelean integratzen da eta Bilbotik Durangaldearaino igarotzen da. Udalerritik igarotzen den ibilbidearen luzera 1.619metrotako da gutxi gora behera.	
2.12. Bide hezkuntza		<p>Nahitaezkoa da Ugao-Miraballeseko bidegorria inguruko herriekin lotu Darin sustatzea.</p> <p>Gaur egungo bidegorriak ibilgailuekin partekatzen du ibilbidea eta horregaitik beharrezkoa da bai oinezko nahiz ibilgailuen partetik erabilera arduratsu bat sustatzea.</p> <p>Praderak Udalari emandako lursailetan disuasio aparkaleku bat garatzeko proiektuak, udalerrian dagoen aparkaleku baharra arintzen lagunduko du.</p> <p>Bide sarean salgaien trafiko handiak eragozpen handiak sortzen ditu (Renfe, autopista eta BI-625). Herrian ez da ibilgailu astunengatik aparkaleku arazorik hauteman ezta salgaien karga eta deskarga dela eta. Autopistako behealdean badaude horrelako ibilgailu motentzako aparkalekuak.</p> <p>Euskadiko Bide segurtasuneko Plan estrategikoaren baitan 2010-2014 ikastetxeei zuzenduta bide hezkuntzarako prestakuntza jarduerak garatzen ari dira.</p> <p>2010-2011 ikasturtean zehar Eskolako Agenda21aren baitan mugikortasunaren gaia landu zen.</p>	

3. BIOANIZTASUNA ETA PAISAIA








LURRALDE GAIAK. Ebaluazio orokorra eta lehenetsuneko jarduerak esparruak			
Azpi eremua	B	Alderdi Nagusiak	Lehenetsuneko esku-hartze jarduerak esparruak
3.1. Natura eta paisaia balioak		Ugao-Miraballesko landarediak UT21 Nerbioi-Ibaizabalen patroia berdina jarraitzen du, Pinus radiata baso landaredia nagusitzen da (azaleraren %30,52), baso landaketak% (14,07 eta Belardi eta atlantiar laborantzak (%11,91).	<ul style="list-style-type: none"> • Ingurumenen kontserbazio eta hezkuntzarako jarduerak areagotu, herritarren inplikazioa eta laguntza sustatuz.
3.2. Sistema naturalen eta paisaien kontserbazio egoera		Udalerrriak eskaintzen dituen natur eta paisaia baloreetara biztanleria gerturatzea beharrezkoa ikusten da.	<ul style="list-style-type: none"> • Eskualde mailan eskaintzen diren baliabide naturalak ezagutarazi.
3.3. Jardueren eragina eta arriskuak nekazaritzan zein natur ingurunean		Garapen urbanistikoa eta Nerbioi ibaiarekiko paralelo doazen eta Ugao-Miraballes zeharkatzen duten azpiegituren ardatzak (Bilbao-Miranda burdinbidea eta Autopista) irazkortasun faunistikoarentzat oztopo bat bihurtu dira.	<ul style="list-style-type: none"> • Nerbioi-Ibaiaren egoera ekologikoaren jarraipena.
3.4. Babestutako natur guneak		Herrian Gernikako zuhaixka bat dago eta hau balioan jarri beharko litzatekeela uste da.	<ul style="list-style-type: none"> • Bertako landaredia babestu. • Gernikako urtadarra balioan jarri. • FOROKO PROPOSAMENA: Herriko ibilbideak balioan jarri.
3.5. Ingurune naturalaren ordenazioa eta kudeaketa		Bizkaiko Iraunkortasunerako Institutuak ibilbide sarean UT21 Nerbioi-Ibaizabalgo udalerrietan zenbait ibilbide aurreikusten ditu. Ez dago sare horretan Ugao-Miraballeseko herrikoa den inongo ibilbiderik, badago ordea seinalizaturiko ibilbide bat BI-Artiartu.	<ul style="list-style-type: none"> • FOROKO PROPOSAMENA: Biztanleriaren artean herriko baliabide naturalak eta babestutako guneak ezagutarazi eta hauek balioan jar daitezten bultzatu.
		Ugao-Miraballesen ez dago Babestutako inongo gune naturalik baina badago herriko azalera osoaren %11,81 ordezkatzen duen azalera babestua.	<ul style="list-style-type: none"> • Eskualde mailan eskaintzen diren baliabide naturalak ezagutarazi. • Balore naturalak balioan jartzeko lanabesak gauzatu.







2. BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA Ebaluazio orokorra eta lehenetsuneko jarduerak esparruak







Azpi eremua	B	Alderdi Nagusiak	Lehenetsuneko esku-hartze jarduerak esparruak
4. URA			
4.1. Ur horniketa		Ura aprobetxatzeko sistemak daude (euri-urak, akuiferotako urak, e.a.) baina ez dira erabiltzen.	<ul style="list-style-type: none"> • Erabilera ez sanitarioa egin ahal izateko euri ura edo beste jatorrietako ura erabiltzeko aukerak aztertu (bideragarritasuna eta errentagarritasuna).
4.2. Edateko ura banatzeko sarea		Oraindik ez da EAEko II Ingurumen Esparru Programak (2007-2010) ezartzen duen kontabilizatu gabeko bolumenaren %25 ^a ez gainditzeko konpromisoarekin betetzen.	<ul style="list-style-type: none"> • Kontabilizatu gabeko ur kontsumoa eta ur sareko galerak kontrolatu eta murriztu.
4.3. Eskaera eta kontsumoa		Kontrolatzen ez den ur parterik handi bat udal ureztatzeko eta instalakuntzei dagokio.	<ul style="list-style-type: none"> • Ura aurrezteko pizgarrien ezarpenean aurrera egin.
4.4. Saneamendua eta arazketa		Udalerrriaren tamaina kontutan hartuta herriko kontsumoaren batezbestekoa	<ul style="list-style-type: none"> • Biztanleria eta udal instalakuntzetako erabiltzaileak ura aurreztu dezaten




2. BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA Ebaluazio orokorra eta lehentasunezko jarduera esparruak			
Azpi eremua	B	Alderdi Nagusiak	Lehentasunezko esku-hartze jarduera esparruak
4.5. Uraren zikloaren araudia eta kudeaketa		(112,7 litro/bizt/egunean) Udalsarea 21eko batzbestea hobetzen du horregatik garrantzitsua da joera hau mantentzea. Udal ekipamendu eta zerbitzu ezberdinetako ur kontsumoa murriztera zuzendutako neurriak garatzen dira (eskolan, futbol zelaian eta polikiroldegian kontsumo murriztaileak jarri dira) eta honela jarraitzea beharrezkoa dela kontsideratzen da.	sentsibilizatzen jarraitu. • FOROKO PROPOSAMENA: Udalak ekipamendu eta eraikuntzetan ura murrizteko hartutako neurrien ondorioz ateratako emaitzen inguruan herritarrak sentsibilizatu.
4.6.Sentsibilizazioa		Udal ekipamendu eta zerbitzu ezberdinetako ur kontsumo murriztera zuzendutako neurriak garatzen dira (eskolan, futbol zelaian eta polikiroldegian kontsumo murriztaileak jarri dira) eta honela jarraitzea beharrezkoa dela kontsideratzen da.	
4.7. Uraren Kalitatea		Saneamendu sare ezberdinen inbentario bat dago, bertan inspektzioak egiten dira eta putzu septikoak pixkanaka kentzea aurreikusten da. Gaur egun saneamendu instalazioak duen aintzintasuna dela eta, narriadura egoeran dauden gunek hautematen dira,. Urarekin erlazioz dauden sentsibilizazio, komunikazio eta parte-hartze ekintzak eskualde mailan garatu dira batik bat eta Iraunkortasunerako Eskualdeko Bulegoak garatu ditu, arlo honetan jarraitu beharra dagoela kontsideratzen da.	
5. HONDAKINAK			
5.1.Hiri hondakinak sortzea		Hiri hondakinaren sorrera biztanleko eta urteko igo egin da %10,68an, UT21eko batzbestea gaindituz 9,27%, azken honek ere gora egin du.	• Udallerri nahiz eskualde mailan hondakinaren sailkapena indartzen jarraitu. • FOROKO PROPOSAMENA: Papera, kartoia eta obra-hondakinaren kokapen desegokiak konpondu sentsibilizazio kanpainen bitartez.
5.2. Gaikako bilketa		Ugao-Miraballes %26,02arekin eskualde maila hondakin gehien berreskuratzen dituen herria da.	• Kontrolik gabeok isurketa puntuen kontrola handitu.
5.3. Hiri hondakinaren kudeaketa		Iraunkortasuneko Eskualdeko Bulegoaren bitartez etxeko olio hondakinak, inpresio eta mugikorren hondakinak, pilak, akumuladoreak, arropa zaharra eta etxeko bestelako tresnen bilketa selektibo udal zerbitzuak koordinatzen dira Orain arte ez da zabor organikoaren bilketa selektiboa ezarri eta momentuz ez da ezer aurreikusten gai honen inguruan ez herri eta ezta eskualde mailan ere. Kontenedoreetan zenbait arazo hauteman dira papera eta kartoia behar ez den bezala botatzeagatik (kartoia bereziki), behar ez den bezala gune publikoa okupatuz. Usirako industria Poligonoan kontrolik gabeko isurketak hauteman dira.	• Udallerri nahiz eskualde mailan sektore ezberdinei eta ekonomi sektoreei zuzendutako prestakuntza, informazio eta sentsibilizazio ekintzak garatzen jarraitu, sortutako hiri hondakinak murrizteko eta bilketa selektiboko ratioak igotzeko. • FROKO PROPOSAMENA: Udallerrian hiri hondakinaren murrizketaren inguruko emaitza onak zabaldu. • Eskualde mailan industria sektoreak sortutako hondakin arriskutsu eta ez arriskutsuen kudeaketa hobetu (Udallerri-Enpresa planaren garapenean) • FOROKO PROPSAMENA: Garbiguneko zerbitzuaren eta obra-hondakinaren bilketa zerbitzuaren zabaltzea bultzatu.
5.3. Hiri hondakinaren kudeaketa		Hondakin zerbitzuan hondakinak murrizteko pizgarriak ezartzen duen udal	





2. BALIABIDE NATURALAK, HONDAKINAK ETA INGURUMEN KALITATEA Ebaluazio orokorra eta lehenasunezko jarduerak			
Azpi eremua	B	Alderdi Nagusiak	Lehenasunezko esku-hartze jarduerak
5.5. Hiri hondakinei buruzko ordenantzak eta zergak		arautegirik ez dago. Hondakinen inguruan herritarrei zuzendutako sentsibilizazio, komunikazio eta parte-hartze jarduerak Eskualdeko Iraunkortasun Bulegotik garatu dira. Arlo honetan garatutako ekintzekin jarraitu eta hauek indartu behar direla ikusten da.	<ul style="list-style-type: none"> Udal zerbitzu eta eraikuntza ezberdinetan sortutako hondakinen murriztea, gutxitzea eta kudeaketarako neurriak ezarri.
5.6. Sentsibilizazioa		UT21 Nerbioi Ibaizabaleko udalerrietan hondakin arriskutsuen balorizazioaren portzentajea igoera bat hauteman da % 44,8 hala ere, baloreak II Ingurumen Esparru Programak ezartzen zuen %65eko balorizazio helburuaren azpitik aurkitzen da.	
5.7. Hondakin industrialak		Garbiguneko zerbitzuaren zabaltzea eta obra-hondakinen bilketa eskatzen da	
5.8. Nekazaritza hondakinak (RUR)	-		
5.9. Eraikuntzako hondakinak			
5.10. Bide garbiketa			
5.11. Udal erakundeetako hondakinak		Udaletxean ez dago zerbitzu ezberdinetan sortutako hondakinen sorrera orokorraren inguruko inongo kontrol sistematizaturik.	
6. ENERGIA			
Azpi eremua	B	Alderdi Nagusiak	Lehenasunezko esku-hartze jarduerak
